Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko martxoaren 29a, asteartea — 60 — Martes, a 29 de marzo de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZKOITIKO UDALA

*Azkoitiko Merkataritza lokalak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko, alokairurako diru-laguntzak. BDNS (Identif.): 616829.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/616829).

2022ko martxoaren 8ko Alkatearen Dekretuz, honako ebazpena onartu du:

*Lehena:* Merkataritza zerbitzuak kudeatzen duen honako diru-laguntza espezifikoa emateko 2022 ekitaldiko deialdia onartzea; 2. puntuan zehaztutako edukiarekin:

— Azkoitiko Merkataritza lokalak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko, alokairurako diru-laguntzak.

*Bigarrena:* 2022 ekitaldiari dagokion deialdia BDNS plataformaren bidez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki oholean, gardentasun atarian eta prentsan argitaratzea ondoko edukiarekin:

*1. Diru-laguntzaren xedea.*

Oinarri hauen xedea honako hau da: Azkoitiko hiri-lurreko lokalak betetzea edota jardueretan belaunaldiaren aldaketa sustatzea, ekintzaile berrien bitartez, merkataritza lokalak berreskuratzeko programaren testuinguruan. Halaber, merkataritza-jardueraren bat martxan jarri nahi duten ekintzaileek diru-laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak eta betekizunak zehaztea eta arautzea da oinarri hauen xedea.

Diru laguntzak Azkoitiko hiri-lurreko merkataritza lokalen alokairuetara zuzenduta daude.

Azkoitiko hiri-lurreko merkataritza lokalen alokairuaren ordainketa lagunduko da diruz, beti ere, aurreikusitako diru kopurua ez bada gainditzen.

*2. Errentako lokalaren kontratuaren iraupena eta Diru-laguntzaren zenbatekoa.*

Alokairu-kontratuaren iraupena, diru-laguntza esleitu zaion pertsona ekintzaileak lokalaren jabearekin sinatu beharrekoa, gutxienez, bi urtekoa izango da. Bi urte hauetan, eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa hileko alokairu-prezioaren % 50ekoa da, gehienez, hilean 250,00 €-ko zenbatekoarekin.

Diru-laguntza 8000.480.431.50.01 sailkapen ekonomikoa duen aurrekontu partidari atxikitu da. Bertan, laguntzak emateko 25.000,00 euroko kreditu erreserba egin da.

## AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Subvención para alquiler a personas emprendedoras para la recuperación de locales comerciales situados en suelo urbano de Azkoitia. BDNS (Identif.): 616829.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/616829).

Aprobado por Decreto de Alcaldía de fecha 8 de marzo de 2022, la siguiente resolución:

*Primera:* Aprobar la convocatoria para el ejercicio 2022 para la concesión de la siguiente subvención específica gestionada por el servicio de Comercio, según el contenido establecido en el segundo punto:

— Subvención para alquiler a personas emprendedoras para la recuperación de locales comerciales situados en suelo urbano de Azkoitia.

*Segunda:* Publicar la convocatoria correspondiente al ejercicio de 2022, mediante la plataforma BDNS en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios municipal, en el portal de transparencia y en la prensa, con el siguiente contenido:

*1. Objeto de las subvenciones.*

El objeto de las presentes bases es el siguiente: dar uso a los locales vacíos situados en suelo urbano de Azkoitia y/o promover el cambio generacional en la actividad, por medio de nuevas personas emprendedoras, en el contexto del programa de recuperación de locales comerciales. Asimismo, es objeto de las presentes bases concretar y regular las condiciones que deben de cumplir las personas emprendedoras que quieran iniciar alguna actividad comercial para recibir las subvenciones.

Las ayudas económicas están dirigidas al alquiler de locales comerciales situados en suelo urbano de Azkoitia.

Se subvencionará el alquiler de los locales comerciales situados en el suelo urbano de Azkoitia, siempre y cuando no se sobrepase la cantidad económica prevista.

*2. Duración e importe de las subvenciones.*

La duración del contrato de alquiler a firmar con el propietario del local por la persona emprendedora a la que se le haya adjudicado la subvención tendrá una duración mínima de dos años. Durante estos dos años, el importe de la subvención adjudicada será el 50 % del precio del alquiler mensual, con un máximo de 250,00 € al mes.

La subvención se ha adscrito a la partida presupuestaria clasificada económicamente como 8000.480.431.50.01. En ella se ha realizado una reserva de crédito por importe de 25.000,00 euros para la concesión de las ayudas.

EK\CV GAO-I-2022-01732

*3. Diru-laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak.*

Dagokion jarduera gauzatzeko lokal bat alokatzen duten edota jarduera baten erreleboa hartzen duten ekintzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Negozio bideragarri baten proiektua izatea.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.

c) Programa honetan parte hartzeko eskaera-inprimakia, beteta aurkeztuta izatea.

d) Proiektuak euskararen presentzia bermatua izatea.

Proiektua aurkezterakoan, saltoki berrian euskararekiko beteko diren irizpideak eta euskarak izango duen presentzia zehaztuko dira. Kontutan izan, programa honen bitartez diru-laguntzak jasotzeko euskararen nolabaiteko presentzia ezinbestekoa izango dela.

Ekintzaileek programa honetan jasotzen diren diru-laguntzez gain Udal Euskara Zerbitzutik ematen diren horiek jasotzeko aukera izango dute eta proiektua lantzerakoan eta baita hau martxan jarri ondoren, euskara zerbitzuko teknikariaren aholkularitza eta laguntza izango ditu.

e) Honako dokumentu hauek atxikitzea: sustatzailearen curriculuma eta jardueraren memoria-proiektua (horretarako eskualdeko agentzia den Iraurgi Lantzen S.A.k bere laguntza eskaintzen du).

Memoriak ondoko puntu hauek jaso behar ditu:

— Negozioaren asmoa zein den labur azaltzea.

— Egitasmoaren ezaugarri berritzaileak, merkatuari balio erantsia ematen diotenak eta besteekiko desberdintzen dutenak azaltzea.

— Proiektuak merkatuaren zer beharrizan asetzen duen azaltzea. Negozioaren aukera azaltzea.

— Produktua edo zerbitzua, zein publiko objektibori bideraturik dagoen zehaztea; hau da, nor izan daitekeen bezero jakinaraztea.

— Negozio-asmoa martxan jartzeko beharko diren baliabideak adieraztea: teknologia eta azpiegitura, giza baliabideak, finantza-baliabideak, etab.

— Negozioaren ideia sustatzen duen taldeak ekintzaile izateko eta enpresa bat bideratzeko zer ahalmen eta gaitasun duen labur-labur zehaztea.

*4. Eskaerak noiz eta non aurkeztu.*

Eskaera inprimakiak behar bezala bete eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkeztuko dira, besteak beste, Azkoitiko Udaleko web orriko tramiteak online atalaren bitartez (https://azkoitia.eus/udala/tramiteak) edo herritarren arreta Zerbitzuan:

— Helbidea: Herriko plaza z.g. 20720 Azkoitia.

— Astelehenetik ostiralera: 07:30-15:30.

— Udako ordutegia ekainaren 15etik irailaren 15 arte (biak barne): 08:00-14:00.

Baldintza hauek argitaratzen diren hurrengo egunetik 2022ko abenduaren 2 arte izango da aukera eskariak aurkezteko.

*5. Aurkeztu beharreko agiriak.*

1) Interesatutako pertsonek edo entitateek, udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute diru-laguntza eskaera. Inprimaki hori, interesatuek eskuragarri izango dute Herritarren Arreta Zerbitzuan eta Azkoitiko udaleko web orrian (www.azkoitia.eus).

*3. Requisitos que deben cumplirse para solicitar la subvención.*

Las personas emprendedoras que arrienden locales o promuevan el relevo generacional para desarrollar la actividad de que se trate, deberán cumplir los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones:

a) Disponer de un proyecto de negocio viable.

b) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias y en relación a la Seguridad Social.

c) El impreso de solicitud cumplimentado, para participar en este programa.

d) Garantizar la presencia del euskera en el proyecto.

Al presentar un proyecto, se concretarán los criterios que se cumplirán en relación con el euskera y la presencia que tendrá. Siendo imprescindible la presencia del euskera en el proyecto, de una u otra forma, esto se tendrá en cuenta de cara a la adjudicación de las subvenciones.

Además de la subvención correspondiente a este programa de ayudas, la persona emprendedora podrá acceder a las ayudas del Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Azkoitia y para la puesta en marcha del proyecto podrá solicitar el apoyo del Técnico de Euskera.

e) Entregar los siguientes documentos: currículum de la persona promotora y memoria-proyecto de la actividad (para ello, la Agencia Comarcal Iraurgi Lantzen S.A. ofrece su ayuda).

La memoria deberá recoger los siguientes puntos:

— Breve descripción del negocio.

— Explicar las características innovadoras y diferenciadoras del proyecto que aportan valor añadido al mercado y lo diferencia con relación a otros.

— Describir la necesidad del mercado que satisface el proyecto. Describir la oportunidad de negocio.

— Detallar el público objetivo, clientes potenciales a los que se dirige el producto o servicio.

— Indicar los recursos necesarios (tecnología e infraestructura, recursos humanos, financieros, etc.) para la puesta en marcha de la idea de negocio.

— Resumir brevemente las capacidades y aptitudes emprendedoras y empresariales del equipo promotor de la idea de negocio.

*4. Cuándo y dónde presentar las solicitudes.*

Los formularios de solicitud se cumplimentarán correctamente y se presentarán en cualquiera de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, a través, entre otros, de la sección de trámites on-line de la página web del Ayuntamiento de Azkoitia (https://azkoitia.eus/udala/tramiteak) o en el servicio de atención ciudadana:

Dirección: Herriko plaza z.g. 20720 Azkoitia.

De lunes a viernes: 07:30-15:30.

Horario de verano: del 15 de junio al 15 de septiembre (ambos incluidos): 08:00-14:00.

Las solicitudes podrán presentarse desde el día siguiente a la publicación de estas condiciones hasta el 2 de diciembre de 2022.

*5. Documentación a presentar.*

1) Las entidades o las personas interesadas presentarán las solicitudes de ayudas en el impreso de instancia elaborado por el ayuntamiento, que se facilitará a todas las personas interesadas tanto en el Servicio de Atención a la Ciudadanía y en la página web municipal (www.azkoitia.eus).


EK\CV GAO-I-2022-01732

Diru-laguntza eskaera orriarekin batera, oinarri espezifikoetan adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da; horrek ez du esan nahi, ordea, udalak, kasuan kasu, interesgarritzat jo ditzakeen beste agiri batzuk ere aurkeztu beharko ez direnik:

— Erakunde eskatzailearen IFZren fotokopia, hala badagokio.

— Zinpeko aitorpena oinarrietan ezarritako baldintza eta eskakizunak betetzen direla bermatuz (eskaera orrian burutuko da).

— Eskatzaileak kontu korrontea ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria.

— Ekintzailearen curriculuma.

— Bideragarritasun-proiektuaren memoria, gutxienez honako datu hauek jasota:

Zer jarduera izango den, merkatua, bezeroak/hornitzaileak, emaitzen aurreikuspena eta berrikuntza-maila.

— Lokalaren alokairuaren kontratua.

2) Eskatzaileari informatzen zaio, Azkoitiko Udalak, diru-laguntzen Oinarri Orokorretan eta Euskara zerbitzuko diru-laguntzen Oinarri Espezifikoetan ezarritako baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Bitartekotzako plataformatik eskatuko diren zerbitzuak:

— Poliziaren zuzendaritza nagusiari: eskatzailearen edo erakunde ordezkariaren nortasun datuen kontsulta eta egiaztatzea.

— Gipuzkoako Foru Ogasunari: zerga betebeharrak egunean dituenaren kontsulta.

— Gizarte Segurantzako Diruzaintzari: Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta.

3) Ofizioz, Azkoitiko Udalak egiaztatuko du, Udalarekin eta bere erakunde autonomoekiko zerga betebeharrak egunean dituela.

*6. Ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Merkataritza teknikariak aurkeztutako eskaerak ebaluatuko ditu, horretarako Herrixen Merkataritza Elkarteko Teknikariaren laguntza izango du. Eskaerak jaso eta hurrengo hilabeteko epean, proposamena ebazteko ahalmena duen Azkoitiko Udaleko Alkateari emango zaizkio azalpenak, honek aztertu eta onartu dezan.

Ebazpena interesatuei idatziz jakinaraziko zaie eskaeran adierazitako eran: paperean ala elektronikoki.

*7. Diru-laguntzaren ordainketa.*

Lokalaren jabeak eta ekintzaile berriak adostuko dute errentaren kopurua, hau noiz eta nola egingo den kontratuan jasoko da.

Udalaren diru-laguntzaren esleipena lortu duen ekintzaileak, errentaren ordainketari aurre egiteko jasoko duen laguntza ekonomikoa kobratzeko, hiru hilez behin ordaindutako errenten ordainagiria aurkeztu beharko du Udaleko Erregistro Orokorrean, hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo lehen 15 egunen barruan. Hiruhilero, justifikatutako ordainketa bakoitzari dagokion laguntza ekonomikoa gainditutako azken hiruhilekora jasoko du ekintzaileak.

*8. Araudia.*

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako arauak aplikatuko dira: Diru-laguntza honen oinarri espezifikoak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 156 zk. 2020ko abuztuaren 18a), Azkoitiko Udaleko Diru-laguntzen Oinarri Orokorrak (Gipuzkoako ALDIZKARI

La solicitud de subvención deberá ir acompañada, de la siguiente documentación, sin perjuicio de la que, en su caso, pueda ser considerada de interés por el ayuntamiento:

— Copia del CIF de la entidad solicitante, en su caso.

— Declaración jurada, garantizando el cumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en las bases (se realizará en la hoja de solicitud).

— Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por el solicitante.

— Currículum de la persona emprendedora.

— Memoria-proyecto o plan de viabilidad que mínimamente deberá incluir:

Actividad a desarrollar, mercado, clientes/proveedores, previsión de resultados y grado de innovación.

— Contrato de arrendamiento del local.

2) Se informa a la persona solicitante de que los datos relativos a las condiciones establecidas en las Bases Específicas y en las Bases Generales de subvenciones serán verificados directamente por el Ayuntamiento de Azkoitia desde la plataforma de intermediación del área de datos y desde otras administraciones. No obstante, la persona solicitante podrá oponerse a dicha verificación. En este caso deberá aportar la documentación correspondiente.

Servicios que se solicitarán desde la plataforma de mediación:

— Dirección General de la Policía: consulta y verificación de los datos de identidad de la persona solicitante o entidad representante.

— Hacienda Foral de Gipuzkoa: Consulta de estar al corriente de pago en sus obligaciones tributarias.

— Tesorería de la Seguridad Social: consulta de estar al corriente de pago en sus obligaciones con la Seguridad Social.

3) De oficio, el Ayuntamiento de Azkoitia verificará que la persona solicitante se encuentra al corriente de pago en sus obligaciones fiscales con el Ayuntamiento y sus organismos autónomos.

*6. Plazo de resolución y notificación.*

El personal técnico de comercio evaluará las solicitudes presentadas, con la ayuda del personal técnico de la Asociación de Comerciantes Herrixen. A partir del día siguiente del fin del plazo para la presentación de instancias y en el plazo de un mes, se presentará la propuesta al Alcalde, para su análisis y aprobación.

La resolución se notificará por escrito a los interesados en la forma indicada en la solicitud: papel o electrónica.

*7. Pago de las subvenciones.*

El importe del alquiler será acordado por el propietario del local y la persona emprendedora, incluyéndolo en el contrato junto con la fecha y modo de pago.

La persona emprendedora que haya resultado beneficiaria de la subvención, para poder cobrar la misma para hacer frente a los gastos de alquiler del local, deberá presentar trimestralmente en el Registro General del Ayuntamiento de Azkoitia el justificante de pago de la renta correspondiente, en los 15 primeros días posteriores a cada trimestre natural. La ayuda económica correspondiente a cada trimestre justificado se abonará a trimestre vencido.

*8. Normativa.*

Para todo aquello no establecido en esta convocatoria se estará a lo dispuesto en: las bases específicas de estas ayudas (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, n.º 156, 18 de agosto de 2020, las Bases Generales de Subvenciones del Ayuntamiento de Azkoitia

EK\CV GAO-I-2022-01732

Ofiziala, 171 zk., 2020ko irailaren 8a), azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

9. *Errekurtsoak.*

Deialdi honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez daiteke bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian eta Berraztertze Errekurtsoa deialdi honen ebazpenaren aurka hilabeteko epean.

Epeak deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

*Hirugarrena:* Erabaki horiek Kontu-hartzailetza sailari jakinaraztea.

Azkoitia, 2022ko martxoaren 22a.—Javier Zubizarreta Zubizarreta, alkatea. (1732)

(Boletín Oficial de Gipuzkoa, n.º 171, de 8 de septiembre de 2020), la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre y el Reglamento que la desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

9. *Recursos.*

Contra la presente convocatoria cabe interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses y Recurso de Reposición contra la resolución de esta convocatoria en el plazo de un mes.

El plazo comenzará al día siguiente a la publicación de esta convocatoria.

*Tercera:* Comunicar dichos acuerdos al departamento de Intervención.

Azkoitia, a 22 de marzo de 2022.—El alcalde, Javier Zubizarreta Zubizarreta. (1732)

EK\CV GAO-I-2022-01732